

TREBA



gurasoak

gipuzkoangazte.eus/treba/gurasoak



1.- Zer TREBA gurasoak?

TREBA Gurasoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren prestakuntza-ekimen berria da, eta gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz, haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea du helburu. Tresna arina eta eraginkorra izan nahi du, hainbat eragileren lankidetzaren bidez, guraso izateari dagokion ezagutza lurralde osoan transmititzeko. Hazieraren eremu hori hain aldakorra izanik, gainera, bizia eta malgua izan nahi du, unean uneko errealitatera eta eskaerara egokitu ahal izateko.

Haur eta nerabeen heziketa-prozesuan, guraso guztiek behar dute momenturen batean laguntza, guraso bezala dituzten funtzioak era egokian garatzeko. Laguntza edo sostengu horrek, ordea, ez du izan behar konpontzailea edo terapeutikoa bakarrik; aitzitik, helburu prebentiboa izan behar du, eta familiako kide guztien garapena sustatu.

Gurasoei laguntza hori eskaintzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak gurasotasun positiboan oinarritutako eskaintza pedagogiko bat osatu du. Programa honen bitartez, gurasoei haurren eta nerabeen heziketa-prozesuan lagunduko dieten gaiak buruzko hainbat hitzaldi eta tailer antolatuko dira lurraldeko udalerrietan.

2.- Zertan oinarritzen da?

Gurasotasuna gauzatzeko modua nabarmen aldatu da gure gizartean. Beste arlo askotan gertatutakoarekin batera (familia-forma ezberdinak, genero-rolen aldaketa, kultura-aniztasuna...), hemen ere kontzeptu-aldaketa bat egon da. Izan ere, seme-alaben aldetik obediencia eta diziplina lortzen oinarrituta zegoen guraso-autoritatearen ordean, konplexuagoa den eta lan gehiago eskatzen duen kontzeptu bat gailentzen ari da: gurasotasun arduratsuaren edo gurasoen erantzukizunaren kontzeptua, hain zuzen ere.

Horren arabera, gakoa jada ez da gurasoek seme-alaben obediencia lortzeko autoritateaz baliatzea, aginte hori arduraz erabiltzea baizik; hau da, seme-alaben eskubideak zaindu daitezen erantzukizunez jokatzeko, baina gurasoenak kaltetu gabe. Horrek barnean hartzen ditu haurrak eta nerabeak beren sozializazio-prozesuan parte hartzerako bultzatzea, beren gaitasun kritikoak sustatzea eta, aldi berean, pixkanaka, beren autonomia eta herritartasun aktiboa sustatzea.

Gauzak horrela, gaur egungo aitei eta amei gurasotasun positiboaren ikuspegiak lagundu diezaike beren seme-alaben heziketako eta hezierako jardunean.

Gurasotasun positiboa:

Gurasotasun positiboa da, funtsean, ikerketa sistematikoak pertsonen garapen psikologikoaren eraginaren arloan lortzen dituen aurkikuntzak familiei helaraztea; hau da, ebidentzia zientifikoan oinarritutako aurrerapenak haiei transferitzea. Hori familiek guraso izateko gaitasunak barneratzen dituztenean lortzen da; eta hala, seme-alaben garapen psikologiko osasungarria babestuko duen familia-testuingurua sortuko dute.

Gurasotasun positiboak harreman afektibo sano, babesle eta egonkorrak sustatzen ditu; errutina eta ohituretan egituratutako ingurune hezitzaile bat (arau eta baloreak malgutasunez transmititzen dituena) sortzen du; estimulazioa, babesa eta ikasteko aukerak ematen ditu; haurren eta nerabeen lorpenak eta gaitasunak aitortzea du oinarri; eta bide-laguntza ematen die beren egunerokotasunean. Aurreko guztia, gainera, indarkeria fisiko, emozional eta ahozkorik gabeko ingurune batean gertatzen da.

3.- Programaren ezaugarriak

FORMATO:

- Bi motatako jardunaldiak izango dira:
 - **Hitzaldiak. Sentsibilizazio eta hausnarketarako.** Inspirazio-iturri izan nahi dute, eta seme-alabekin egiteko moduari buruzko gako txikiak emango dira (1,5 orduko saioak).
 - **Tailerrak. Gaitasunak lantzeko oinarrizko ezagutzak.** Teoria eta praktika uztartuz, arazoak konpontzeari emango zaio garrantzia, trebakuntzari (guztira 4 ordu, 2 saiotan).
- Gai bakoitza bi formatuetan eskainiko da. Hau da, hitzaldian landutakoa tailerrean sakonago garatuko da; jarraipen bat izango da, baina bakoitza bere aldetik ere egin daiteke. Beraz, hitzaldi bat antolatu ondoren, parte-hartzaileen artean gaia gehiago lantzeko interesa pizten bada, tailerra antolatzeko eskatu dezakete. Erantzuna, sor daitekeen eskariaren arabera izango da.
- Gehienetan, prestakuntza-jardueren hartzailak bereizi egiten dira: batetik, haurren gurasoak, eta bestetik, nerabeenak.
- Gai bakoitzeko hitzaldia eta tailerra aditu berberak emango ditu.



- Aurrez aurrekoak izatea lehenetsiko da.
- Prestakuntza-jarduerak publiko orokorrarentzat izan behar dute (aforoa edo parte-hartzaileen muga bete arte). Nolanahi ere, aita edo ama orok izan behar du jardueretan parte hartzeko aukera, haren antolamenduan esku hartu duen elkarte batekoa izan edo ez.

HIZKUNTZA:

Euskaraz edo gaztelaniaz egingo dira. Beraz, eskaerarekin batera, zein hizkuntzatan izatea nahi den adierazi beharko da.

IRAUPENA:

Agenda ikasturtez ikasturte osatuko da; lehena, 2021-2022an.

TOKIA:

Hitzaldiak eta tailerrak dagokion udalak proposatzen duen lekuan egingo dira.

PREZIOA:

Parte-hartzaileentzat doakoak izango dira.

4.- Nola funtzionatzen du?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak, udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuen laguntzarekin, Gipuzkoako guraso eta hezkuntza-eragileen (guraso-elkarte, hezitzaile...) eskura jarri du TREBA Gurasoak prestakuntza-jardueren katalogoa. Hala, eskaintza horretan agertzen den hitzaldi edo tailer bat antolatzeko ekimena, gaiarekiko kezka, interesa edo beharra duen edozein guraso edo hezkuntza-eragilerengandik abia daiteke.

Gurasoek edo bestelako hezkuntza-eragileek beren udalerrian programa honetako gai jakin baten inguruan hitzaldi edo tailer bat antolatzea nahi badute, udaleko haur, nerabe eta gazteen sustapen-teknikariari egin beharko diote eskaera.



[Ikus udaletako haur, nerabe eta sustapen teknikarien helbideak](#)

Guraso eta bestelako hezkuntza-eragileek gure [web-orrian](#) ere egin ditzakete beren eskaerak eta proposamenak [formulario](#) honen bidez. Bertan jasotzen direnak dagokion udalari helaraziko zaizkio.

Udalek, eskaera guztiak aztertu eta ekimenaren bideragarritasuna baloratuta (datak, espazioak, gutxieneko parte-hartzaileen kopurua, etab.) Aldundiko Gazteria Zuzendaritzari adieraziko diote katalogoko zer jarduera nahi dituzten programatu

Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak eskaerak aztertu, eta udal bakoitzari jakinaraziko dio berea onartu edo baztertu den, baita arrazoiak ere.

Eskaeren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritzak eskubidea izango du antolatutako hitzaldien kopurua mugatu edo dosifikatzeko, esleitutako aurrekontua agortu arte.

EPEA:

Gipuzkoako Foru Aldundian eskabideak aurkezteko epea **urriaren 22a** izango da. Epe horretan, eskaeren lehen bilketa egingo da, eskaria ezagutzeko eta programa antolatzeko. Nolanahi ere, udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuek ikasturtean zehar egin ahalko dituzte eskaerak, baina, egun horretatik aurrera, jarduerak unean uneko baliabide ekonomikoen eta trebatzaileen agendaren arabera esleituko dira.

IZEN-EMATEAK:

Hitzaldia edo tailerra antolatzen duen udalean (tailerrak gauzatzeko, gutxienez 10 pertsonak eman behar dute izena)

5.- Programan parte hartzeko baldintzak (udalentsako informazioa)

TREBA Gurasoak ekitaldi bat egiteak berekin ekar dezake Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren eta udal bakoitzeko haur eta gazteen sustapen-sailaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea. Nolanahi ere, programan parte hartzeko gutxienez honako baldintza hauek onartu beharko dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu programaren diseinuaren kostuak, trebatzaileen ordainsariak, programaren komunikazio orokorra eta honen kudeaketa lurralde mailan.
- Udalak bere gain hartuko ditu prestakuntza-jarduerak udalerrian sor ditzakeen kostuak, lokala, antolaketako langileak, argia eta soinua, tokiko eragileekiko harremana, herri mailako komunikazioa, izena emateko prozesua, saioaren segimendua eta horri buruzko informazioa eta balorazioa.



- Prestakuntza-jarduerak gauzatu ahal izateko, gutxienez 10 pertsonak eman beharko dute izena aurrez.
- Udalak prentsaurreko bat emango du udalerriko prestakuntza-jardueraren berri emateko. Foru Aldundiko arduradun politiko batek parte hartu ahal izango du bertan.

KONTAKTUA:

- Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- gazteria@gipuzkoa.eus
- 943 112431

6.- Hitzaldi eta tailerren katalogoa

Ondoko hitzaldi eta tailerrek osatzen dute TREBA Gurasoak programaren katalogoa. Aurrez egindako azterketaren eta gurasoekin eta haur, nerabe eta gazteen sustapeneko udal-teknikariekin egindako kontraste-lanaren emaitza dira.

Hauek dira 2021-22 ikasturterako proposatzen direnak. Hala ere, gaiak aldatu edo egokitu ahal izango dira zenbait faktoreren arabera, hala nola formatzaileen agenda, beste gai batzuen eskaria edo planteatutako ikastaroek sortutako interesa.

Era berean, datozen ikasturteetan gai berriak proposatuko ditugu. Horretarako, programaren garapenak emango digun eskarmentuan eta ezagutzan oinarritu, eta unean uneko eskaera eta interesak izango dira kontuan.

Hitzaldi eta tailerren katalogoa



1. Guraso izatearen artea.

- Trebatzailea: [Nerea Mendizabal](#)

1.1- [HITZALDIA](#).

1.2- [TAILERRA](#).

2. Emozioen garrantzia familian.

Nola zaindu seme-alaben emozioak

- Trebatzailea: [Donna Apellaniz](#)

Haurren gurasoentzat:

2.1- [HITZALDIA](#). 2.2- [TAILERRA](#).

Nerabeen gurasoentzat:

2.3- [HITZALDIA](#). 2.4- [TAILERRA](#).

3. Komunikazio ez bortitza.

- Trebatzailea: [Nerea Mendizabal](#)

3.1- [HITZALDIA](#).

3.2- [TAILERRA](#).



4. Arauak eta mugak familian. Nola ezarri era asertibo batean.

- Trebatzailea: [Donna Apellaniz](#)

4.1- [HITZALDIA](#).

4.2- [TAILERRA](#).

5. Nola landu sexualitatea haur eta nerabeekin

- Trebatzailea: [Jone Zalduegi](#)

Haurren gurasoentzat:

5.1- [HITZALDIA](#). 5.2- [TAILERRA](#).

Nerabeen gurasoentzat:


5.3- [HITZALDIA](#). 5.4- [TAILERRA](#).

6. Guraso-banaketa osasuntsu baten alde.

- Trebatzailea: [Nerea Mendizabal](#)

6.1- [HITZALDIA](#).

6.2- [TAILERRA](#).



7. Haurrak, nerabeak eta Internet: ohiturak, arriskuak eta erabilera segurua

- Trebatzailea: [Rakel Gamito](#)

Haurren gurasoentzat: (0-11 urte)

7.1- [HITZALDIA](#). 7.2- [TAILERRA](#).

Nerabeen gurasoentzat: (12-17 urte)

7.3- [HITZALDIA](#). 7.4- [TAILERRA](#).

8. Substantzien kontsumoa. Zer egin dezake familiak?

- Trebatzailea: [Estibaliz Ansotegi](#)

8.1- [HITZALDIA](#).

8.2- [TAILERRA](#).

9. Kirol-apustuak eta ausazko jokoak. Zer egin dezake familiak?

- Trebatzailea: [Estibaliz Ansotegi](#)

9.1- [HITZALDIA](#).

9.2- [TAILERRA](#).



10. Haur eta nerabeen ongizaterako eta garapen osasuntsu baterako gakoak

- Trebatzailea: [Leyre Cano](#)

Haurren gurasoentzat:

10.1- [HITZALDIA](#). 10.2- [TAILERRA](#).

Nerabeen gurasoentzat:

10.3- [HITZALDIA](#). 10.4- [TAILERRA](#).

11. Hezkidetzeta eta haurtzaroa. Nola landu etxean?

- Trebatzailea: [Jone Zalduegi](#)

Haurren gurasoentzat:

11.1- [HITZALDIA](#). 11.2- [TAILERRA](#).

Nerabeen gurasoentzat:

11.3- [HITZALDIA](#). 11.4- [TAILERRA](#).

12. Bulliying egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu

- Trebatzailea: [Estibaliz Ansotegi](#)

12.1- [HITZALDIA](#).

12.2- [TAILERRA](#).

*** Ikastaro bakoitzari buruzko informazioa kontsultatu nahi baduzu egin klik aukera bakoitzaren gainean**



1-

Gurasotasuna

Hitzaldia: 1

Tailerra: 1





1.1- Guraso izatearen artea. HITZALDIA

Trebatzailea: Nerea Mendizabal (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Guraso izateak gure indarguneak eta ahulguneak azalarazten dizkigu uneoro. Horien jabe egiteko aukera zabalduko da, indartu nahi ditugun alderdietan begirada goxoa jartzeaz gain, gure egunerokotasunean baliagarriak izango zaizkigun ideiak partekatuz.
- Helburuak
 - Gure jokabide automatikoen eta patroien jabe egitea
 - Gurasoen gaitasunak ezagutu eta indartzea
 - Gurasoen ahalduntzea piztea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Nola lagundu seme-alabei behar dutena baino gehiago eta gutxiago ez emateko?
 - Akatsak egiteko baimena eta horietatik ikasteko aukera
 - Gatazken kudeaketa, kolaborazioa pizteko gogotik
 - Konfiantza garatzen
- Metodologia
 - Eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, hausnarketarako eta galderak egiteko aukera zabalduko da.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - Mugarik gabe
- Datak eta orduak
 - Trebatzailearen agendaren arabera

1.2- Guraso izatearen artea. TAILERRA.

Trebatzailea: Nerea Mendizabal (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Guraso izateak gure indarguneak eta ahulguneak azalarazten dizkigu uneoro. Horien jabe egiteaz gain, hainbat tresna eta baliabide ezagutu eta praktikatzeko espazioa zabalduko da.

■ Helburuak

- Gure jokabide automatikoen eta patroien jabe egitea.
- Gurasoen gaitasunak ezagutu eta indartzea.
- Gurasoen ahalduntzea piztea.

■ Landuko diren edukiak eta gaitasunak

- Nola lagundu seme-alabei behar dutena baino gehiago eta gutxiago ez emateko?
- Akatsak egiteko baimena eta horietatik ikasteko aukera
- Gatazken kudeaketa, kolaborazio pizteko gogotik
- Konfiantza garatzen

■ Metodologia

- Eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoaren bidez eguneroko egoerak aztertu eta sakondu ahal izango dira.

■ Talde bakoitzeko partaide kopurua.

- 20 pertsona gehienez

■ Datak eta orduak

- Trebatzailearen agendaren arabera.



2-Garapen sozioemozionala

Hitzaldiak: 7

Tailerrak: 7





2.1 Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak. HITZALDIA – HAURREN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Donna Apellaniz (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Hitzaldi honetan seme-alaben emozioek egunerokoan duten garrantzia azpimarratu, eta horiek kudeatzeko eta zaintzeko lehen urratsak azalduko dira.
- Helburuak
 - Adimen emozionalari buruzko ezagutzak eskuratzea.
 - Emozioak zer diren jakitea.
 - Emozioen funtzioak ezagutzea.
 - Emozioak kudeatzen ikastea.
 - Emozioen atzean dauden beharrak ezagutzea.
 - Bidelagun emozionalak izateko beharrezkoak diren tresnak ezagutzea.
 - Familian adimen emozionala garatzeko baliabideen berri izatea.
 - Egoera emozional ezberdinetan moldatzen jakitea.
 - Gatazka emozionalak era onuragarri batean konpontzen ikastea.
 - Hurrei beren emozioetan laguntzeko tresnak eskuratzea.
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Zer dira emozioak?
 - Emozioen funtzioak
 - Nondik datoz emozioak? (emozioen zergatia)
 - Beharrak: zertara bultzatzen gaituzte emozioek?
 - Kudeaketa emozionala
 - Hurren emozioak: nola bizitzen dituzte?
 - Bidelaguntza emozionala: nola izan hurren bidelagun emozionala?
- Metodologia
 - Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa).
 - Teorian oinarrituta, egunerokoan bizitzen diren egoerak landuko dira, esperientziarekin konektatzeko eta lanketa sakonagoa egin ahal izateko.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua
 - Lekuaren arabera
- Datak eta orduak



- Azaroa
- Otsaila
- Martxoa
- Apirila
- Maiatza
- Goiz zein arratsalde izan daiteke, egunaren arabera.

2.2 Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak. TAILERRA – HAURREN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Donna Apellaniz (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Tailer honetan seme-alaben emozioek egunerokoan duten garrantzia azaldu, eta horiek nola kudeatu eta zaindu landuko da, familian sortzen diren arazo eta gatazketan erabiltzeko tresna emozionalak eskuratuz.
- Helburuak
 - Adimen emozionalari buruzko ezagutzak eskuratzea.
 - Nork bere burua hobeto ezagutzea, gai honen inguruan dituen baliabideak landuz eta erabiliz.
 - Emozioak zer diren jakitea.
 - Emozioen funtzioak ezagutzea.
 - Emozioak kudeatzen ikastea.
 - Emozioen atzean dauden beharrak identifikatzen ikastea.
 - Gaitasun emozionalak (kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, trebetasun sozioemozionalak, bizitza-erako eta ongizaterako trebetasunak) ezagutzea eta horiek garatzen laguntzeko erremintak barneratzea.
 - Bidelagun emozionalak izateko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea.
 - Familian adimen emozionala garatzeko baliabideak menderatzea.
 - Egoera emozional ezberdinetan moldatzen jakitea.
 - Gatazka emozionalak era onuragarri batean konpontzen ikastea.
 - Hurrei beren emozioetan laguntzeko tresnak eskuratzea.
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Zer dira emozioak?
 - Emozioen funtzioak?
 - Nondik datoz emozioak (emozioen zergatia)?
 - Beharrak: zertara bultzatzen gaituzte emozioek?
 - Kudeaketa emozionala



- Haurren emozioak: nola bizitzen dituzte?
- Bidelaguntza emozionala: nola izan haurren bidelagun emozionala?
- Estrategia eta tresna sistemikoak.

- Metodologia
 - Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa). Haurrekin hezkuntza emozionala landu nahi bada, helduok egin behar dugu lanketa hori lehenbizi, emozioak gure inkontzientean bizi baitira; eta, beraz, ezin ditugu horiek landu ikasketa teoriko batekin bakarrik.
 - Teorian oinarrituta kasu praktikoak landuko dira, emozioak lantzeko emozionatu egin behar delako.

- Talde bakoitzeko partaide-kopurua
 - 20-25 pertsona gehienez.

- Datak eta orduak
 - Azaroa
 - Otsaila
 - Martxo
 - Apirila
 - Maiatza
 - Goiz zein arratsaldean izan daiteke, egunaren arabera.

2.3 Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak. HITZALDIA – NERABEEN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Donna Apellaniz (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Hitzaldi honetan seme-alaben emozioek egunerokoan duten garrantzia azpimarratu, eta horiek kudeatzeko eta zaintzeko lehen urratsak azalduko dira.

- Helburuak
 - Adimen emozionalari buruzko ezagutzak eskuratzea.
 - Emozioak zer diren jakitea.
 - Emozioen funtzioak ezagutzea.
 - Emozioak kudeatzen ikastea.
 - Emozioen atzean dauden beharrak ezagutzea.
 - Bidelagun emozionalak izateko beharrezkoak diren tresnak ezagutzea.



- Familiar adimen emozionala garatzeko baliabideen berri izatea.
- Egoera emozional ezberdinetan moldatzen jakitea.
- Gatazka emozionalak era onuragarri batean konpontzen ikastea.
- Nerabeei beren emozioetan laguntzeko tresnak eskuratzea.

- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Zer dira emozioak?
 - Emozioen funtzioak
 - Nondik datoz emozioak? (emozioen zergatia)
 - Beharrak: zertara bultzatzen gaituzte emozioek?
 - Kudeaketa emozionala
 - Nerabeen emozioak: nola bizitzen dituzte?
 - Bidelaguntza emozionala: nola izan haurren bidelagun emozionala?

- Metodologia
 - Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa).
 - Teorian oinarrituta, egunerokoan bizitzen diren egoerak landuko dira, esperientziarekin konektatzeko eta lanketa sakonagoa egin ahal izateko.

- Talde bakoitzeko partaide-kopurua
 - Lekuaren arabera

- Datak eta orduak
 - Azaroa
 - Otsaila
 - Martxoa
 - Apirila
 - Maiatza
 - Goiz zein arratsalde izan daiteke, egunaren arabera.

2.4 Emozioen garrantzia familian. Nola zaindu seme-alaben emozioak. TAILERRA – NERABEEN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Donna Apellaniz (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Tailer honetan seme-alaben emozioek egunerokoan duten garrantzia azaldu, eta horiek nola kudeatu eta zaindu landuko da, familian sortzen diren arazo eta gatazketan erabiltzeko tresna emozionalak eskuratuz.



■ Helburuak

- Adimen emozionalari buruzko ezagutzak eskuratzea.
- Nork bere burua hobeto ezagutzea, gai honen inguruan dituen baliabideak landuz eta erabiliz.
- Emozioak zer diren jakitea.
- Emozioen funtzioak ezagutzea.
- Emozioak kudeatzen ikastea.
- Emozioen atzean dauden beharrak identifikatzen ikastea.
- Gaitasun emozionalak (kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, trebetasun sozioemozionalak, bizitzarako eta ongizaterako trebetasunak) ezagutzea eta horiek garatzen laguntzeko erremintak barneratzea.
- Bidelagun emozionalak izateko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea.
- Familiar adimen emozionala garatzeko baliabideak menderatzea.
- Egoera emozional ezberdinetan moldatzen jakitea.
- Gatazka emozionalak era onuragarri batean konpontzen ikastea.
- Nerabeei beren emozioetan laguntzeko tresnak eskuratzea.

■ Landuko diren edukiak eta gaitasunak

- Zer dira emozioak?
- Emozioen funtzioak?
- Nondik datoz emozioak (emozioen zergatia)?
- Beharrak: zertara bultzatzen gaituzte emozioek?
- Kudeaketa emozionala
- Nerabeen emozioak: nola bizitzen dituzte?
- Bidelaguntza emozionala: nola izan nerabeen bidelagun emozionala?
- Estrategia eta tresna sistemikoak.

■ Metodologia

- Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa). Nerabeekin hezkuntza emozionala landu nahi bada, helduok egin behar dugu lanketa hori lehenbizi, emozioak gure inkontzientean bizi baitira; eta, beraz, ezin ditugu horiek landu ikasketa teoriko batekin bakarrik.
- Teorian oinarrituta kasu praktikoak landuko dira, emozioak lantzeko emozionatu egin behar delako.

■ Talde bakoitzeko partaide-kopurua

- 20-25 pertsona gehienez.

■ Datak eta orduak

- Azaroa



- Otsaila
- Martxo
- Apirila
- Maiatza
- Goiz zein arratsaldean izan daiteke, egunaren arabera.

3.1- Komunikazio ez bortitza. HITZALDIA

Trebatzailea: Nerea Mendizabal (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra:
 - Harremanak zaindu eta modu eraginkorrean kudeatzen lagundu dezakeen komunikatzeko modua aurkeztuko da. Familiako kideen beharrak ezagututa, denok amesten dugun etxeko giroaz gozatzeko gakoak ezagutuko dira.
- Helburuak
 - Besteengana gerturatzeko lagunduko digun hitz egiteko eta entzuteko modua ezagutu eta praktikatzeko.
 - Familiako giroa kudeatzeko eta bizitzako harreman desberdinak zaintzeko alderdiak ezagutzea.
 - Gatazken kudeaketarako eta mugak jartzeko baliabideak eskuratu.
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - KEBeko irizpideak aurkeztu eta praktikatu. Intentzioa, adierazpen zintzoa eta entzute enpatikoa
 - Seme-alabek gustatzen ez zaigun zerbait egin edota esaten dutenean: nola kudeatu gatazkak? zer esan benetan entzuteko? zer muga jarri eta nola? nola hobetu komunikazioa seme-alabekin?
- Metodologia
 - Eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, hausnarketarako eta galderak egiteko aukera zabalduko da.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - Mugarik gabe.
- Datak eta orduak
 - Trebatzailearen agendaren arabera.



3.2- Komunikazio ez bortitza. TAILERRA

Trebatzailea: Nerea Mendizabal (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra:
 - Harremanak zaindu eta modu eraginkorrean kudeatzeko tresnekin partaideentzat esanguratsuak diren egoeretan praktikatzeko aukera izango da.
- Helburuak
 - Besteengana gerturazten lagunduko digun hitz egiteko eta entzuteko modua ezagutu eta praktikatzea.
 - Familiako giroa kudeatzeko eta bizitzako harreman desberdinak zaintzeko alderdiak ezagutzea.
 - Gatazken kudeaketarako eta mugak jartzeko baliabideak eskuratzea.
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - KEBeko irizpideak aurkeztu eta praktikatu. Intentzioa, adierazpen zintzoa eta entzute enpatikoa
 - Seme-alabek gustatzen ez zaigun zerbait egin edota esaten dutenean: nola kudeatu gatazkak? zer esan benetan entzuteko? zer muga jarri eta nola? nola hobetu komunikazioa seme-alabekin?
- Metodologia
 - Eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoek bidez ohiko egoerak aztertu eta sakondu ahal izango dira.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - 20 pertsona gehienez
- Datak eta orduak
 - Trebatzailearen agendaren arabera



4.1 Arauak eta mugak familian. Nola ezarri era asertibo batean. HITZALDIA

Trebatzailea: Donna Apellaniz (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra:
 - Hitzaldi honen bitartez, familian harreman orekatua, osasungarria eta onuragarria izateko zer behar den ikusiko da, hori garatzeko beharrezkoak diren arauak eta mugak nola jarri landuz.
- Helburuak
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinak ezagutzea.
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinen ondorioak ikustea.
 - Familia-giro ona izateko modua lantzea.
 - Familian arauak eta mugak izatearen beharra jakitea.
 - Familiako arauak era asertiboan jartzearen onurak ikustea.
 - Familian arauak era asertiboan jartzeko tresnak ezagutzea.
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinen ezagupena.
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdiak erabiltzearen ondorioak.
 - Zer dira mugak?
 - Zertarako balio dute mugek?
 - Mugak era asertiboan jartzearen onurak.
 - Mugak era asertiboan jartzeko tresnak.
 - Arauen beharra familian.
 - Arauak era asertibo batean jartzeko modua.
 - Zer izan behar dugu kontuan arauak eta mugak jartzeko orduan?
- Metodologia
 - Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa).
 - Teorian oinarrituta, kasu praktikoak landuko dira.
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinak ezagutzeko kasu praktikoak azalduko dira.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - Lekuaren arabera.
- Datak eta orduak



- Azaroa
- Otsaila
- Martxoa
- Apirila
- Maiatza
- Goiz zein arratsaldez.

4.2 Arauak eta mugak. Nola ezarri era asertibo batean. TAILERRA

Donna Apellaniz (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Tailer honen bitartez, familian harreman orekatua, osasungarria eta onuragarria izateko beharrezkoa den egitura nola izan landuko dugu, horretarako lagungarriak izango zaizkigun arauak eta mugak jartzen ikasiz.
- Helburuak
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinak ezagutzea.
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinen ondorioak ikustea.
 - Familia-giro ona izateko modua lantzea.
 - Familian arauak eta mugak izatearen beharra jakitea.
 - Familiako arauak era asertiboan jartzearen onurak ikustea.
 - Familian arauak era asertiboan jartzeko tresnak eskuratzea.
 - Familian dauden gatazkak eta arazoak ebazteko tresnak eskuratzea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinen ezagupena.
 - Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinak erabiltzearen ondorioak.
 - Zer dira mugak?
 - Zertarako balio dute mugek?
 - Mugak era asertiboan jartzearen onurak.
 - Mugak era asertiboan jartzeko tresnak.
 - Arauen beharra familian.
 - Arauak era asertibo batean jartzeko modua.
 - Zer izan behar dugu kontuan arauak eta mugak jartzeko orduan?
- Metodologia
 - Hau guztia lantzeko metodologia dinamikoa erabiliko da (teoriko-praktikoa).
 - Teorian oinarrituta, kasu praktikoak landuko dira.



- Familia-hezkuntzaren eredu ezberdinak ezagutzeko kasu praktikoak azalduko dira eta, hortik abiatua, parte hartzaileekin batera bide berriak bilatuko dira, teoriarik landu dena praktikara bideratuz.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - 20-25 pertsona gehienez.
- Datak eta orduak
 - Azaroa
 - Otsaila
 - Martxoa
 - Apirila
 - Maiatza
 - Goiz zein arratsaldez.

5.1 Haurrak eta sexualitatea eratzea, non kokatzen gara gurasoak?. HITZALDIA - HAURREN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Jone Zalduegi. (Emoki) (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Sexualitatea etxeko espazioan era baikor eta dinamikoan lantzeko hitzaldia izango da. Alaba eta semeak sexualitatean hezteko gakoak jorratuko dira.
- Helburuak
 - Haurrak, gorputza eta identitatea aztertzea
 - Inguruko pertsonen eta gurasoen eragina identifikatzea
 - Haurrekin modu onuragarrian hitz egiteko baliabideak eskaintzea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Autozaintza eta plazera
 - Haurrak eta genero-estereotipoak
 - Aniztasuna lantzeko irizpideak
- Metodologia
 - Adin txikikoekin sexualitatea lantzeko kasuak eta esperientziak bistaratzen laguntzen duten dinamiken bidez, sexualitateak haur eta nerabeen identitateari, ongizateari eta portaerari eragiten diela ulertzen lagunduko



da. Informazioa zer adinekin jaso beharko luketen eta zer eta nola landu jakiteko, beharrezkoa da lehenago ezagutzea zer eduki kontsumituko dituzten, zer testuingurutan, zer pertsonarekin, eta zeintzuk izan daitezkeen jasotzen duten informazioaren eta jasotzen ez duten informazioaren ondorioak.

- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - 30 pertsona gehienez
- Datak eta orduak
 - 2022an
 - Ostegun batean

5.2 Nola landu haurrekin etxeko espazioan sexualitatea. TAILERRA - HAURREN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Jone Zalduegi. (Emoki) (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Sexualitatea etxeko espazioan era baikor eta dinamikoan lantzeko espazioa sortzea da helburua. Alde batetik, zalantzak eta planteamendu anitzak jorratzeko espazioa sortuko da, eta bestetik, alaba eta semeak sexualitatean hezteko gakoak jorratuko dira.
- Helburuak
 - Hurren identitatearen prozesua lantzea
 - Espazio digitalak eta publizitateak duen garrantziaren faktoreak eta adierazleak identifikatzen ikastea
 - Haurrekin modu onuragarrian hitz egiteko baliabideak eskaintzea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Sexualitatea eratzean eragina duten aisialdirako espazioen azterketa
 - Autozaintza eta plazera
 - Haurrak eta genero-estereotipoak
 - Aniztasuna lantzeko irizpideak
- Metodologia



- Adin txikikoekin sexualitatea lantzeko kasuak eta esperientziak bistaratzen laguntzen duten dinamiken bidez, sexualitateak haur eta nerabeen identitateari, ongizateari eta portaerari eragiten diela ulertzen lagunduko da. Informazioa zer adinekin jaso beharko luketen eta zer eta nola landu jakiteko, beharrezkoa da lehenago ezagutzea zer eduki kontsumituko dituzten, zer testuingurutan, zer pertsonarekin, eta zeintzuk izan daitezkeen jasotzen duten informazioaren eta jasotzen ez duten informazioaren ondorioak.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - 20-22 pertsona gehienez
- Datak eta orduak
 - 2022an
 - Ostegun batean

5.3 Nerabeak eta sexualitatearen eraikitzea, non kokatzen gara gurasoak? HITZALDIA - NERABEEN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Jone Zalduegi. (Emoki) (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Sexualitatea etxeko espazioan era baikor eta dinamikoan lantzeko hitzaldia izango da. Alaba eta semeak sexualitatean hezteko gakoak jorratuko dira.
- Helburuak
 - Sexualitatea nola eratzen den ikustea
 - Espazio digitalak eta publizitateak duten eragina aztertzea
 - Guraso eta nerabeen sexualitateak identifikatzea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Sexualitatea eta aisialdirako espazioak
 - Erotika, plazera eta autozaintza
 - Identitatea, orientazioa eta aniztasuna
- Metodologia
 - Adin txikikoekin sexualitatea lantzeko kasuak eta esperientziak bistaratzen laguntzen duten dinamiken bidez, sexualitateak haur eta nerabeen



identitateari, ongizateari eta portaerari eragiten diela ulertzen lagunduko da. Informazioa zer adinekin jaso beharko luketen eta zer eta nola landu jakiteko, beharrezkoa da lehenago ezagutzea zer eduki kontsumituko dituzten, zer testuingurutan, zer pertsonarekin, eta zeintzuk izan daitezkeen jasotzen duten informazioaren eta jasotzen ez duten informazioaren ondorioak.

- Talde bakoitzeko partaide-kopurua
 - 30 pertsona gehienez
- Datak eta orduak
 - 2022an
 - Ostegun batean

5.4 Nola landu nerabeekin etxeko espazioan sexualitatea. TAILERRA - NERABEEN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Jone Zalduegi. (Emoki) (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Sexualitatea etxeko espazioan era baikor eta dinamikoan lantzeko espazioa sortzea Da helburua. Alde batetik, zalantzak eta planteamendu anitzak jorrazteko espazioa sortuko da, eta bestetik, alaba eta semeak sexualitatean hezteko gakoak jorraztuko dira.
- Helburuak
 - Sexualitatea nola eratzten den ikustea
 - Espazio digitalak eta publizitateak duen eragina aztertzea
 - Gurasoen eta nerabeen rolaz hausnartzea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Sexualitatea eratzean eragina duten espazioak eta faktoreak: publizitatea, filmak, bideo-jokoak, sare sozialak, youtuberrak, etab.
 - Erotika, plazera eta autozaintza
 - Maskulinitatea eta feminitatea eratzean eragina duten genero-estereotipoak
 - Identitatea, orientazioa eta aniztasuna
 - Tratu onak garatzeko irizpideak



- Metodologia
 - Adin txikikoekin sexualitatea lantzeko kasuak eta esperientziak bistaratzen laguntzen duten dinamiken bidez, sexualitateak haur eta nerabeen identitateari, ongizateari eta portaerari eragiten diela ulertzen lagunduko da. Informazioa zer adinekin jaso beharko luketen eta zer eta nola landu jakiteko, beharrezkoa da lehenago ezagutzea zer eduki kontsumituko dituzten, zer testuingurutan, zer pertsonarekin, eta zeintzuk izan daitezkeen jasotzen duten informazioaren eta jasotzen ez duten informazioaren ondorioak.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua
 - 20-22 pertsona gehienez
- Datak eta orduak
 - 2022an
 - Ostegun batean

6.1- Guraso-banaketa osasuntsu baten alde. HITZALDIA

Trebatzailea: Nerea Mendizabal (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra:
 - Bikote-harremana hasi eta amaitu daiteke baina aita-amek guraso izaten jarraituko dute. Erronka horretan sortzen diren gaiei aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen baliabideekin praktikatzeko aukera izango da.
- Helburuak
 - Erabakiak helduongan piztu dezakeenaz jabetzea
 - Guraso izaten jarraitzea, bikote izan gabe
 - Hurrei informazioa emateko oinarrizko jarraibideak eskaintzea
 - Erabakiak haurrengan izan dezakeen eraginaren aurrean, haien bidelagun izatea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Helduon errua, mina, tristura... eraldatzeko gakoak.
 - Zer leku edo begirada eskaini nahi diot seme-alaben aita edo amari?
 - Zer, noiz eta nola esan seme-alabei?
 - Nola zaindu seme-alaben mina, haserrea, frustrazioa, tristura?
 - Nola hartu denon beharrak zaintzeko erabaki egokiak?




- Metodologia
 - Eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, hausnarketarako eta galderak egiteko aukera zabalduko da.
- Talde bakoitzeko partaide-kopurua.
 - Mugarik gabe.
- Datak eta orduak
 - Trebatzailearen agendaren arabera

6.2- Guraso-banaketa osasuntsu baten alde. TAILERRA.

Trebatzailea: Nerea Mendizabal (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra:
 - Bikote-harremana hasi eta amaitu daiteke baina aita-amek guraso izaten jarraituko dute. Erronka horretan sortzen diren gaiei aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen baliabideekin praktikatzeko aukera izango da.
- Helburuak
 - Erabakiak helduongan piztu dezakeenaz jabetzea
 - Guraso izaten jarraitzea, bikote izan gabe
 - Hurrei informazioa emateko oinarritzko jarraibideak eskaintzea
 - Erabakiak haurrengan izan dezakeen eraginaren aurrean, haien bidelagun izatea
- Landuko diren edukiak eta gaitasunak
 - Helduon errua, mina, tristura... eraldatzeko gakoak.
 - Zer leku edo begirada eskaini nahi diot seme-alaben aita edo amari?
 - Zer, noiz eta nola esan seme-alabei?
 - Nola zaindu seme-alaben mina, haserrea, frustrazioa, tristura?
 - Nola hartu denon beharrak zaintzeko erabaki egokiak?
- Metodologia
 - Eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, hausnarketarako eta galderak egiteko aukera zabalduko da.
- Taldeen partaide kopurua. Gehienekoak

- Gehienez 20 pertsona
- Datak eta orduak
- Trebatzailearen agendaren arabera





3-

Gizarte- testuingurua eta ingurune fisikoa



Hitzaldiak: 9

Tailerrak: 9





7.1 Haurren eta pantailen arteko harremana ulertzen (0-11 urte bitarteko haurren familientzat) HITZALDIA – HAURREN GURASOENTZAT

Trebatzailea: Rakel Gamito (Bere fitxa katalogo amaieran kontsulta dezakezu)

- Helburu orokorra
 - Haurrek denbora asko ematen dute pantailaren aurrean. Zer egin dezake familiak erabilera-ohitura egokiak sustatzeko? Hitzaldi honetan gailu digitalen alderdi positiboak zein negatiboak zerrendatuko dira, online testuinguruetan haurrek zaintzeko estrategiak zehazteko.
- Helburuak
